


ERAKUSKETAK

- **ANGELU**
Georges Pompidou erakustokia. Jean Marie Poumeyrol-en pinturak. Urtarrilaren 25a arte.
- **BAIONA**
Bonnat Museoa. Belén Napolitanoren beira suitzarra. Urtarrilaren 30a arte.
- **BASAUARI**
Udal Kultur Aretoa. Sonia Ruedaren pinturak. Urtarrilaren 29a arte.
- **BILBO**
Euskal Museoa. Eulalia Abaituaren 'La Ría, imágenes de otro tiempo' argazki erakusketa. Urtarrilaren 26a arte.
Arte Galeria. Begoña Izquierdoren Antologia. Otsailaren 1a arte.
Luis Paret y Alcazar-en pinturak. Urtarrilaren 31a arte.
Juan Larrea Aretoa. 'Imajina ezazu Euskadi' lehiaketan saritutako pinturak eta argazkiak. Urtarrilaren 31a arte.
Windsor Galeria. Carmen Olabarriren lanak. Urtarrilaren 31a arte.
Caledonia. XIX eta XX mendeetako Maisuen Kolektiboa. Urtarrilaren 30a arte.
BBKko erakusgela (Gran Vía). Roberto Martínez Unanuenen pinturak. Urtarrilaren 25a arte.
Ederti Galeria. Pedro Salaberriren pinturak. Urtarrilaren osoan.
Vanguardia Galeria. Txupi Sanzen pintura eta eskulturak. Urtarrilaren osoan.
Windsor Kulturgintza. Carmen Olabarriren pinturak.
- **DONOSTIA**
Arteku. 'La línea de Portbou. Walter Benjamini omenaldia'. Otsailaren 14a arte.
Gipuzkoa Donostia Kutxa (Garibai). M^o Dolores Agirrezabalaren pinturak. Urtarrilaren 28a arte.
Aitzerrri Galeria. Antoni Tàpiesen grabatuak. Urtarrilaren 20a arte.
La Pecera Galeria. Mariano Arsuagaren pintura eta grabatuak. Urtarrilaren 29a arte.
- **EIBAR**
Udaletxe Kultur Aretoa. Javier Herreroen '52 Amets' erakusketa. (Pinturak, grabatuak, marrazkiak). Bihar arte.
- **GASTEIZ**
Caruso kafetegia. Fernando Larrearen akuarelak. Urtarrilaren 19a arte.
Ceramo eta Espacio 40 Galeria. Gabonetako erakusketa: eskultura, pintura, grabatu eta marrazkia. Urtarrilaren 30a arte.
Trayecto Galeria. Christine Boshier-en eskulturak. Urtarrilaren amaiera arte.
Amerika Aretoa. SEI erakusketa. 'Euskadiko Arte Gaztea'. Txaro Arrazola, Joseba Lakadena, Daniel Laskurain, Pablo Milikua, Eduardo López eta Aurora Suárez-en pintura eta eskulturak. Urtarrilaren 23a arte.
- **INDEPENDENCIA ARETOA**. Joaquin Gutierrez Vicén-en pinturak. Azken eguna.
San Prudencio aretoa. Luis Sáez-en pinturak. Urtarrilaren 19a arte.
Araba Aretoa. Rosa Calzadaren pinturak. Azken eguna.
Luis Ajuria Aretoa. José Antonio Semaren pinturak. Azken eguna.
Independencia Aretoa. Ramiro Ortiz de Guinearen lanak. Azken eguna.
Olagibel Aretoa. 'Gizakia eta bere inguru ekologikoa' Erakusketa. Urtarrilaren 30a arte.

- **GETXO**
Erromoko kultur Aretoa. Javier Collado eta Esteban Sanvicenteren pinturak. Urtarrilaren 25a arte.
- **HERNANI**
Biteri Kultur Etxea. 'Gernika Gogoratuz' erakusketa. Kultur Batzordeak antolatua Hernaniko herrian den Kontzientzi Eragozpenako Mugimenduarekin lankidetzan. Urtarrilaren 25a arte.
- **IRUÑEA**
Lacava Kafetegi-Galeria. Pedro Osakarren lanak. Otsailaren 2a arte.
Nafarroako Museoa. Genevillaren erretabloa. Otsailaren 8a arte.
Conde de Rodezno Aretoa. Mercedes Donat Peris-en pinturak. Urtarrilaren 26a arte.
García Castañón Aretoa. Jesús Iraizoz Michelenaren pinturak. Otsailaren 2a arte.



behar da. Ramon y Cajal 8. behean, edo telefono zenbaki honetan: ☎ 475 22 33.
'Nabucco' operari buruzko hitzaldia. Ercilla Hotelean 20.00etan.
● **DURANGO**
Hitzaldia. Gaia: Energia arazoak. Hizlaria: Julen Rekondo. Pinondo Etxean 19.30etan.

- **LEGAZPI**
Kultur Etxea. Murua Fierro Sendiaren marrazkiak. Urtarrilaren 31a arte.
- **ORDIZIA**
Barrena Kultur Etxea. Tren Maketen Erakusketa. Bihar arte.
- **PASAI ANTZO**
Kultur Etxea. Pasaiako Udalaren Artezko Ondarea Erakusketa. Urtarrilaren 26a arte.
- **SESTAO**
Kontserbatorioko Aretoa. Argazki lehiaketan saritutako lana. Urtarrilaren 30a arte.
- **ZARAUTZ**
Sanz Enea. Euskal Herriko Herri Kirolak (1915-1948) argazki erakusketa. Urtarrilaren 19a arte.



ORDIZIA
Tren Maketak
Bihar arte

- **BERGARA**
Mintegia. Gaia: Bizitzaren gertakariak, gizarte ikerketarako teknika bat. Mintegi hori otsailaren 7, 8 eta 15an izango da eta izen emateko epea urtarrilaren 31an amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Soziologia Departamentura jo (Bergarako UNED). ☎76 13 42/53 - 76 29 93/62.
- **BILBO**
Ohizko Euskal Dantzen XVI Ikastaroa, Euskal Folklor Elkartek antolatua. Klaseak Autonomia kaleko 44an emango dira, astelehen eta asteazkenetan. Ikastaroa hasia dagoen arren, matrikulatzeko epea aste honetan amaituko da. Izena emateko edo informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎ 422 00 50/4 edota 421 01 61 telefonoz zenbakira deitu eta Anaz galdetu.
- **Bertsolaritza Ikastaroa**. Urtarriletik ekainera izango da Matxintxu AEK eskultzean, asteazkenero 20.00etatik 22.00etara. Izen ematea Matxintxu AEK Eskultzean egin

- **GASTEIZ**
Hitzaldia. Gaia: Saharar emakumea autodeterminazio prozesuan. Hizlaria: Jira Bulahi Saharar Emakumeen Batasunaren Aldeko Kanpo Harremanetako Arduraduna. Luis de Ajuria Aretoa 19.30etan.
- **Mintegia**. 'Emakumeek eta gizonek heziketa berdina' gaiari buruzko mintegia urtarrilaren 20, 21 eta 22rako. Ariznavarra zentru sozialean 16.00 eta 18.00etan. Izen emateko epea bihar amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ☎ 25 43 43/28 28 08 telefono zenbakietara deitu.

Glotodidaktika ikastaroa IKAK antolatua. Ikastaroa urtarrilaren 20tik 30era izango da eta matrikulatzeko epea bihar amaituko da. Izena Gasteiz Eskultzean eman behar da (Errege Katolikoak kalea, 15 c). ☎ 28 89 22.

- **IRUÑEA**
'Las Indias (Amerika), Urrezko mendearen literaturan' Nazioarteko kongresua. 10.30etatik 13.30etara hitzaldiak Nafarroako Unibertsitatean, 16.00etatik 19.00etara Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Indioen irudia Lope de Vegaren antzerkian** gaiari buruzko hitzaldia. Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko hitzaldi aretoa 20.00etan.

- **ZARAUTZ**
Mollarri dantza taldeak, 1985. urtean edo lehenago jaiotako neska mutilentzako matrikula epea ireki du eta urtarrilaren 25an amaituko da. Izena Marian estankoa eman behar da (Zigordia kalea).

LEHIAKETAK

- **BEASAIN**
1992ko Gipuzkoako Kanta-Txapelketa. Txapelketa horretan parte hartzeko prest leudeken herriko euskal kantari ez-profesional guztiei (nola bakarlarri hala taldeei) dei egiten zaie parte hartzeri eta horretarako xehetasunak Euskara Zerbitzuan emango zaizkie.
- **BILBO**
'Imaginatuz Euskadi-IV' lehiaketa, Banco Hispano Americano-k antolatua: Argazki, pintura, ipuin eta poesia (Euskaraz zein gaztelaz idatz daitezke). Lanak aurkezteko epea urriaren 31an amaituko da.
- **DONOSTIA**
'Elbire Andereñoa' VIII sariaketa, Euskerazintzak antolatua: Olerki-sariketa eta Ipuin-



DOLORES Agirrezabala tolosarraren pinturak. Donostiako Kutxak Garibai kalean duen Erakustea Aretoa izango dira ikusgai, urtarrilaren 28a arte. 1927. urtean jaio zen pintore honen 97 pintura biltzen ditu erakusketa honek.

- sariketa. Lehenengo sariketarako umeentzako olerkiak izango dira eta ez meek eginak (40-60 lerro). Eta, Ipuin-sariketa gaztetxoentzako da (16 urte baino gehiago ez dutenentzat). Sariketa bi horietarako lanak urtarrilaren 31rako aurkeztu behar dira. Helbidea: 'Euskerazaintza', Getaria 21, 20005 Donostia. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero ere, bertara jo.
- Donostiako Tribu Urbanoei Buruzko Argazki Lehiaketa. 14tik 18ra bitarteko gazteek har dezakete parte. Gehienez lau argazki aurkeztu dezake bakoitzak. Aurkeztutako lanen artean aukera bat egingo da Donostian, Dinamarkan eta Polonian egingo den erakusketa ibiltarirako. Argazkiak aurkezteko epea bihar amaituko da. Helbidea: Kultur Patronatua, Republica Argentina 2. 3. 20004 Donostia.

Fandango (Orripeko) eta Arin Arin VII Txistu Musika Lehiaketa. Konposizioan ohizko tresnak erabili beharko dira: bi txistu eta silbota. Danbolina eta danborra aukeran izango dira. Irabazle suertatzen diren orripeko eta arin arinak ekainean izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira. Lanak urtarrilaren 31rako bidali behar dira udaletxera. Informazio gehiago bertan.



BILBO
Bela Lugosiren maketa

- **BARAKALDO**
'No te acuestes enfadado'. Barakaldo Antzokian 20.00 eta 22.30etan.
- **BILBO**
'Uno de los nuestros'. Deustuko Zine Klubean 11.30 eta 19.00etan.
- **'La pouerta cerrada 7, 8, 9'**. Arte Ederretako Museoa 17.00etan.
- **EIBAR**
'Sed de mal'. Rialto zinemaren 22.00. etan.
- **'La cahqueta metálica'**. Zuzendaria: S. Kubrick. Laboral Unibertsitatean 17.30etan.
- **GETARIA**
'Estropadak' ikusentzuteko emanaldia. Udaletxe Plenu Aretoa 19.30etan.
- **GETXO**
'Los timadores'. Zuzendaria: Stephen Frears. Areetako Gran zinemaren 19.00etan.

● SEGURA

- Zetazeoi buruzko diapositibak erakutsiko ditu J.I. Garciak Areetako Audiotegian 19.00etan.
- **SESTAO**
Zine ekologikoa. Amezaga zinemaren 20.00etan.
- **TOLOSA**
Sahara herriari buruzko bideo emanaldia eta ondoren, hitzaldia Rafael Zulaikaren eskutik. Kultur Etxeko Areeto Nagusian 19.30etan.

ANTZERKIA

- **DONOSTIA**
'Danimarkako printzea' antzezlanaren taularatuko du El Talleret del Salt taldeak. Antzoki Zaharrean 11.30etan.



DONOSTIA
'Danimarkako printzea'

MENDI IRTEERAK

- **DURANGO**
Kanala-Atxarre-Akordia-Laida mendi ibilaldia. Urtarrilaren 19an izango da. Tabira Mendizale Taldeak antolatua. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: ☎ 681 34 32.
- **GASTEIZ**
Baiza gailurrera ibilaldia, urtarrilaren 19an izango da. Irteera goizeko 8etan Prado kaletik. Izen ematea Cuchilleria kaleko 61ean egin behar da. 20.30etatik 22.00etara, edo telefono zenbaki honetara deituz: ☎ 25 03 54.

MUSIKA

- **BILBO**
Bela Lugosi taldeak bere maketa aurkeztuko du. Gaueko tabernan arratsalde eta gauez. Vladimir Nazarov-ren folklore talde errusiarrak. Ayala Antzokian 20.00etan.
- **DONOSTIA**
Orpheus Chamber Orquestra. Victoria Eugenia Antzokian 19.30etan.
- **GASTEIZ**
Alejandro Zabala pianojolea eta Maite Idirin abeslaria. Filologia eta Historia Fakultatean goizean.

BESTELAKOAK

- **BARAKALDO**
Ilusionismo ikuskizuna: 'Malo, el Malísimo' Donald Lehn-en eskutik. Barakaldo Antzokian 20.00etan.
- **IRUÑEA**
Liburu aurkezpenak. Idazle desberdinen 'Control social del delito: crítica y alternativas' liburua eta César Manzanosen 'Carcel y marginación social' liburua. Hizlariak: César Manzanos, Peio Aierbe, Javier Iezana eta Pepe Uruñudía. Bartolome de Carranza Fundazioko hitzaldi aretoa 20.00etan.